


# → TXERTOAK



## ZER DIRA TXERTOAK?

Txertoak honela defini daitezke: infekzio jakin bat sortzen duten birus edo bakterioen aurkako defentsa espezifikoen ekoizpena estimulatzeko ematen diren produktuak. Birus edo bakterio kopuru oso txiki eta seguru baten eraginpean jartzen dute gorputza. Hala, gorputzak birus eta bakterio horiek ezagutzen ikasi, eta aurka egin ahal die, inoiz haien eraginpean badago.



Txertaketa da modurik onena maila indibidualean eta komunitarioan erraz hedatzen diren **gaixotasun larriak prebenitzeko**.

## SEGURUAK AL DIRA TXERTOAK?

Bai, seguruak dira. Osasun-kontrolak egiten zaizkie jarri aurretik. Segurtasuna zaintzen duten erakunde guztiek ondorioztatu dutenez, txertoen onurak gehiago dira arriskuak baino.

## BIGARREN MAILAKO ONDORIORIK AL DUTE?

Beste edozein medikamentuk bezala, albo-ondorio batzuk eragin ditzakete. Gehienak oso arinak dira, egun pare bat irauten dute eta tratatu egin daitezke. Hauek dira ohikoenak: mina, hantura edo gorritasuna injekzio-lekuan, suminkortasuna, nekea, muskuluetako mina edo sukar baxua. Zapi hotz eta heze bat jar daiteke mindutako eremuan edo, beharrezkoa bada, sukarra medikazioarekin tratatu. Erreakzio alergikoak ez dira oso ohikoak, eta osagai isolaturen baten ondorio izaten dira.

# → TXERTOAK



## NOLA JAKIN ZER TXERTO JARRI?

Txertaketa-egutegian jasotzen dira txerto mota, beharrezko dosiak eta txerto bakoitza zer adinetan aplikatu behar den. Gurean, egutegi espezifiko bat dago 16 urte artekoentzat, eta beste bat helduentzat.

## NOLA LAGUNDU DEZAKET?

Hona hemen zenbait gomendio txertaketa errazteko:



### Txertoei buruzko informazioa jaso.

Zalantzak argitzeko, iturri ofizialak kontsultatu (webguneak, gidak, osasun-arloko profesionalak...).



Ahal izanez gero, **emaiozu bularra** txertoa jartzen dioten bitartean.



Zer egingo dioten **azaldu iezaiozu**, hark ulertu ahal izateko moduan.



**Kontsolamendua eta laguntza eman**, hala behar badu.



Saiatu **lasaitasuna eta konfiantza** transmititzen.



Txertaketa osteko zainketarako **jarraibide guztiak** ulertu dituzula **ziurtatu**.



Izan zaitetz **ulerkorra** haren beldurraren aurrean.



**Ez ahaztu txertoak erregistratzeko dokumentua.**



Umearen adinaren arabera, arreta ematen ari den profesionalak esango dizu zein den **gorputz-jarrerarik eta eusteko modurik onena**.



**Albo-ondoriorik** dagoen behatu.